



# Koalizio gobernuko kideentzat test garrantzitsua



Datorren urteko apirilean egingo diren hauteskunde orokorretarako urtebete baino gutxiago falta dela eta

udal hauteskundeetarako lau hilabete, Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak egungo koalizio gobernuaentzat test garrantzitsua dira. Baina horrek baino gehiago erabakiko du ekainaren 24 eta 25ean Korfuko Gailurrean Europako Kontseiluak, Jean Luc Dehaene lehen ministro belgikarra Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariaren lekurako aukeratzen baldin badu.

KOLDO ALDABE / DONOSTIA

Dehaene Europako Batzordeko lehendakari izendatzen baldin badute, ez zaio etorkizun onik iragarriko sozialista eta demokratikoen koalizioa. Belgikar gehienek koaliziotik iri. Belgikar gehienek koaliziotik iri. Belgikar gehienek koaliziotik iri. Belgikar gehienek koaliziotik iri.

Huteskunde kanpaina lasaia izan da Europako Batasuneko erakunde gehienak dauden herrian. Alderdi gehientsuenak Europako Batasunaren Hitzarmenaren aldekoak dira eta eztabaida handirik ez dago euren artean. Kanpaina kaleetako kartel batzuek osatu dute, zerrendaburu argazki eta alderdien esloganekin. Oposizioko alderdiek, datorren urteko hauteskundeetan boterera igotzeko aukera handia duten liberekin batez ere, Gobernu koaliotikideen aurkako botoa eskatu dute. Hortik aurrera, kanpainak ez du gehiegi eman.

Strasburgeko Legebiltzarrak —Belgikaren borroka Legebiltzarrak Bruselara eramatea da— dituen 567 eskainuetatik 25 eurodiputatu belgikarrek beteko dituzte. 1989ko europar hauteskundeetan 24 diputatu egokitu zitzaizkion Belgikari. Horiestatik zortzi sozialistak (walloniar eta flandriarrak) izan ziren, zazpi kristau-demokratikak (flandriar eta walloniarrek), lau liberalak (bi herrialdeetakoak), hiru berdeentzat (bi herrialdeetakoak), Volksunie-ko nazionalista flandriarrentzat bat eta beste bat Vlaams Blok ultraeskuindar flandriarrentzat.

Biharko hauteskundeetarako Gobernu koaliotikideen aurkako botoa eskatu dute. Hortik aurrera, kanpainak ez du gehiegi eman.

Hori dela eta, irabazle nagusiak liberal flandriarrak eta walloniarrek izango direla dirudi. Wallonian garaipena lortuko dute eta Flandrian, berriz, lehenbiziko aldiz kristau-demokraten aurretik geratzeko aukera handia izango dute.

## ULTRAESKUINDAR FLANDRIARREN GORAKADA

Volskuniak bere eskainuari eutsi egingo dio inkesten arabera. Baina inkognita handiena Vlaams Blokeko ultraeskuindarrek izan lezaketen gorakada da, batez ere 1991ko hauteskunde orokorretan izan zuten gorakada kontuan hartuta. Vlaams Blokek 1989an sorpresa eman zuen jada eurodiputatu bat eskuratzean, eta orain bi eskuratzeko aukera du. «Garbiketa handia» leloa aurreratu dute ultraeskuindar flandriarrek. «Ustelen garbiketa» Alderdi Sozialista walloniarrei dagokionez; «inmigrazioaren garbiketa» atzerritarren sarreraren aurka, «delinkuentziaren gorakadaren erantzule zuzenak»; «Bruselaren eurokraziaren garbiketa», hau da, «Brusela Europa osoko hiriburu bihurtzen bada, lisboarren edo danimarkarren hiriburu, zer geratuko da brusselarrontzat?». Wallonian ultraeskuindarrek gehiago izan arren, euren botoak bi alderditan zatitzen dira eta beraz indarra galdu dute.

Belgikan botoa ematea derri gorrezkoa da eta, beraz, parte hartzea % 90etik gorakoa izatea ez da harrizkoa izango.

## BELGIKA

Populazioa:

10,0 milioi biztanle

Azalera:

30.518 km<sup>2</sup>

Hiriburu:

Brusela (970.000 biztanle)



J. APEZTEGIA

## 1989ko EUROPAR HAUTESKUNDEAK

Parte hartzea  
% 90,7

Eskainuak  
24 (orain 25)

Hauteskunde eguna  
Ekainak 12

	(*)	Esk.	Botoak	%
CVP flandriarra	PPE	5	1.247.090	21,1
Sozialista walloniarrek	PSE	5	854.148	14,5
Sozialista flandriarrak	PSE	3	733.247	12,4
PVV flandriarrak	LDR	2	625.566	10,6
PSC walloniarrek	PPE	2	476.802	8,1
PRL walloniarrek	LDR	2	423.511	7,2
Ecolo	V	2	371.053	6,3
Agalev flandriarra	V	1	446.524	7,6
Volksunie flandriarra	ARC	1	318.146	5,4
Vlaams Blok flandriarra	DR	1	247.117	4,1
Beste	-	-	161.626	2,7

(\*) Europako Parlamentuan dagokion taldea

PPE: Talde Popularrak / PSE: Talde Sozialista / ARC: Ortzadar Taldea / LDR: Liberaletan Talde / V: Berdeak / DR: Europar Eskuindarren Talde Teknikoa

## Izar saltsa

### Europako Batzordeko hautagai nagusia

KOLDO ALDABE

Jean Luc Dehaene Belgikako lehen ministroa faborito nagusia da Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariaren ordezkatzeko. Frantzia eta Alemaniaren botoak ziurtatuta ditu datorren ekainaren 24 eta 25ean Korfuko Gailurrean. Hauteskunde hauetan bere alderdiak botoak galtzeak, ordea, ez dio asko lagunduko Ruud Lubbers kide holandarraren aurrean, hauteskunde orokorrek galdu arren he-

renegun Holandan egin ziren Europakoetan berri esker bertako Alderdi Kristau-Demokratikak boto asko irabazi baititu. Kristau-demokrata flandriarrak Belgikaren eredu federala eraman nahi du Europara. Delorsek eginiko lana itzela izan da, baina hurrengoak izango duena ere ez da txikiagoa izango. Maastricht ondorengo Europaren eraikuntzaren arduradun nagusi izan behar du, eta 1996an egingo den Batasun Hitzarmenaren berrikusteak markatuko du epe hori.

azken zenbakia

# JAKIN

# 81

## INFORMAZIOA ETA DEMOKRAZIA EUSKADIN GAUR

ADIERAZPEN-ASKATASUNERAKO PLATAFORMA,  
DAVID BARBERO, MARIANO FERRER, PETXO IDOIGIA,  
LUIS MENDIZABAL, XABIER OLEAGA, RAMON ZALLO

## PRENTSA-BULEGOAK

TXEMA RAMIREZ

## APOCALIPSIAREN LILURA

XABIER CILLERO

... eta ohizko kolaboratzaileak  
JOXEAN MUÑOZ, INAKI IRAZABALBEITIA,  
HASIER ETXEBERRIA, ELIXABETE GARMENDIA,  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI,  
BEGOÑA DEL TESO eta KIKE AMONARRIZ

kultura, hizkuntza, literatura eta zientzia-munduko gertakariak komentatuz

## egin zaitez harpidedun

JAKIN. Tolosa hiribidea, 103-1.C - 20009 DONOSTIA - Tel.: 21.80.92